

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5008

29/2019 DEKRETUA, urriaren 23koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide bat.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 5. artikulua ezarritakoaren arabera, lehendakariaren eskumena da ordezkari handiena duten sindikatuen konfederazioek eta erakundeek batzordean dituzten kideak izendatzea, erakunde horiek beren ordezkariak aukeratu ondoren; bestalde, lege horren 7. artikulua arabera, batzordeko kideen agintaldia lau urterako izango da, berriro aukeratu ahal izango badira ere.

Legeak agintzen du, baita ere, batzordean ordezkariak duten erakundeek, korporazioek edo entitateek alda ditzaketela titular edo ordezkari izendatu dituzten pertsonak. Izendatu berria kargu horretan arituko da ordezkariak duten pertsonak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bete beharreko lau urteko epea igaro arte.

Lege horren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 7. artikuluekin bat etorritik, CC.OO. Euskadiko Langileen Batzordeen Konfederazio Sindikalak lehendakariaren maiatzaren 9ko 16/2019 Dekretuaren bidez izendatutako kide baten ordezkari bat izendatu du.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Francisco Juan Osuna Matamoros jauna Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko ordezkari izendatzea, CC.OO. Euskadiko Langileen Batzordeen Konfederazio Sindikalak aukeratu baitu, Begoña Blanco Santos andrearen ordezkari.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 23an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.